

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

Araua: 2008/46/EE ZUZENTARAUUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2008ko apirilaren 23koa, 2004/40/EE Zuzentaraua, langileak eragile fisikoen arriskuetatik (eremu elektromagnetikoetatik) babesteko gutxienezko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa, aldatzen duena (hemezortzigarren berariazko Zuzentaraua, 89/391/EEE Zuzentarauko 16. artikuluko 1. idatz-zatiaren arabera).

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Arduralaritzaren Euskal Erakunde (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu honen ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta honek ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da :
«DIRECTIVA 2008/46/CE DEL PARLAMENTO EUROPEO Y DEL CONSEJO, de 23 de abril de 2008, por la que se modifica la Directiva 2004/40/CE sobre las disposiciones mínimas de seguridad y de salud relativas a la exposición de los trabajadores a los riesgos derivados de los agentes físicos (campos electromagnéticos) (decimoctava Directiva específica con arreglo al artículo 16, apartado 1, de la Directiva 89/391/CEE)» (*Europar Batasunaren Egunkari Ofiziala, L 114/88, 2008/4/26koa*)

2008/46/EE zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 114/88 2008/4/26koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ZUZENTARUAUK

2008/46/EE ZUZENTARUAU, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA

2008ko apirilaren 23koa

2004/40/EE Zuzentaraua, langileak eragile fisikoen arriskuetatik (eremu elektromagnetikoetatik) babesteko gutxienezko segurtasun- eta osasun-xedapenei buruzkoa, aldatzen duena (hemezortzigarren berariazko Zuzentaraua, 89/391/EEE Zuzentarauko 16. artikuluko 1. idatz-zatiaren arabera).

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR BATASUNEN KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratatu eta, bereziki, 137. artikuluko 2. paragrafoa aztertu dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena aztertu dute ⁽¹⁾,

Kontsulta egin diote alde zuzenetik Eskualdeetako Komiteari,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari jarraiki ⁽²⁾,

Honako hauek kontuan hartuta:

(1) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/40/EE Zuzentarauak, langileak eremu elektromagnetikoek sortutako arriskuetatik babesteko gutxienezko segurtasun- eta osasun-xedapenak ezartzen ditu ⁽³⁾. Zuzentarau horretako 13. artikuluko 1. idatz-zatiak xedatutakoaren arabera, Estatu kideek beharrezko lege-, araudi- eta administrazio-xedapenak jarri behar dituzte indarrean, 2008ko apirilaren 30ean beranduenez, Zuzentarau horretan xedatutakoa betetzeko.

(2) 2004/40/EE Zuzentarauak Erradiazio Ez Ionizatzaileekiko Babesaren Nazioarteko Batzordearen (EEIBNB) gomendioetan oinarritutako ekintza eta muga-balioak sortzen dituzten balioak ezartzen ditu. Europako Parlamentuari, Kontseiluari eta Batzordeari erradiazio elektromagnetikoen eraginpean egoteak osasunean dituen ondorioei buruzko azterlan zientifiko berriak bidali zaizkie, hain zuzen ere Zuzentaraua onartu ondoren argitaratutakoak. Gaur egun EEIBNB eta Osasunaren Munduko Erakundea, lehenengoak bere gomendioen berrikuspena egitean, eta bigarrenak, ingurumen osasungarritasunaren irizpideak berrikustean, azterlan zientifiko horien emaitzak aztertzen ari dira gaur egun. Gomendio berri horiek 2008 bukaera baino lehen argitaratuko direla aurreikusi da, eta horrek ekintza eta muga-balioak sortzen dituzten elementuetan aldaketa nabariak ekar ditzake.

(3) Testuinguru horretan, xehetasun handiz berraztertu behar da 2004/40/EE Zuzentarauak mediku-irudian eta industria-jarduera jakin batzuetan oinarritutako mediku-prozeduren erabilera duen aplikazioaren eragina. Batzordeak ikerketa bati ekin dio, mediku-irudiari buruzko egoera kuantitatiboki eta zuzenean ebaluatzeko. Hori dela-eta, ikerketa horren emaitzak, 2008 hasieran eskuragarri egongo direla aurreikusitakoak, eta Estatu kideetan abian jarritako antzekoenak ere, kontuan eduki behar dira, aipatutako mediku-teknologiak modu eraginkorrean erabiltzean sor daitezkeen onurak eta langileentzat sor daitezkeen arriskuei aurre egiteko neurrien artean oreka dagoela bermatzeko.

(1) 2008ko martxoaren 12ko Irizpena (oraindik Egunkari Ofizialean argitaratu gabea).

(2) Europako Parlamentuaren irizpena, 2008ko otsailaren 19koa (Egunkari Ofizialean oraindik ere argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2008ko apirilaren 7koa.

(3) L 159 EO, 2004.4.30ekoa, 1.or; bertsio zuzendua L 184 EOean, 2004.5.24koan, 1. orrialdean. 2007/30/EE Zuzentarauak aldatutako Zuzentaraua (L 165 EO, 2007.6.27koa, 21. or).

2008/46/EE zuzentaraua (EBren Egunkari Ofiziala, L 114/88 2008/4/26koa)

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

(4) 2004/40/EE Zuzentarauak 3. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoaren arabera, langileak eremu elektromagnetikoen eraginpean zein heineraino dauden kalkulatu edo neurtzeko, Europa mailako arau harmonizatuak, Normalizazio Elektroteknikoaren Europako Komiteak (Neelek) emandakoak, hartu behar dira oinarritzat. Arau harmonizatu horiek kontuan hartzea komeni da, funtsezkoak baitira Zuzentaraua modu harmonizatuan aplikatzen dela bermatzeko; hau da, 2008 bukaeran hartuko direla aurreikusi den arauen arabekoak izango direla bermatzeko.

(5) Datu berri horiek eskuratu eta aztertzeko eta zuzentarau-proposamen berria osatu eta onartzeko beharrezko epea dela-eta, bidezkoa da 2004/40/EE Zuzentaraua barne-zuzenbidera sartzeko muga-epea lau urte luzatzea.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

2004/40/EE Zuzentaraan, 13. artikuluko lehenengo lerrokadaren ordez honako testu hau jarriko da:

«1. Estatu kideek indarrean jarriko dituzte Zuzentarau honetan ezarritakoa betetzeko beharrezkoak diren lege-, arau- eta administrazio-xedapenak, beranduenez, 2012ko apirilaren 30ean. Berehala emango diote horren berri Batzordeari».

2. artikulua

Europar Batasuneko Egunkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean Zuzentarau hau.

3. artikulua

Estatu kideak dira Zuzentarau honen hartzaileak.

Estrasburgon egina, 2008ko apirilaren 23an.

Europako Parlamentuaren izenean, H.-G. PÖTTERING presidentea

Kontseiluaren izenean, J. LENARČIČ presidentea